

PROBA ESPEZIFIKOA

2020ko PROBA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PROBA

ERANTZUNAK





ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA

AZALPENAK

Probaren iraupena: ordubete.

Azterketaren egitura eta atal bakoitzaren puntuazioa:

2 galdera teoriko; guztira, 3 punturen balioa. Galdera bakoitzaren gehienezko balioa 1,5 puntu izango da.

2 problema; guztira, 4 punturen balioa. Atal honetan, ikasleak 3 problemaren artetik 2 hautatu eta ebatzi beharko ditu. Problema bakoitzaren gehienezko balioa 2 puntu izango da.

Test motako 10 galdera. Lau erantzun daude aukeran, baina bat bakarrik da zuzena. Testak guztira **3 punturen** balioa izango du. Erantzun egoki bakoitzari 0,3 puntu emango zaizkio; erantzun desegoki bakoitzeko 0,1 puntu kenduko dira, eta erantzun gabe utziz gero, ez da punturik kenduko. Atal honetan, dena dela, azken emaitza ez da inoiz negatiboa izango.

Galdera teorikoetan eta problemetan atal bakoitzaren balorazioa adierazita dago, baita zuzentzeko irizpidea ere.

GALDERA TEORIKOAK:

- 1) "Ekoizten den pistola bakoitza, uretaratzen den gerraontzi bakoitza, jaurtitzen den suziri bakoitza, azken finean, goseak egonik elikagaiak ematen ez zaizkien horiei lapurtzea da." Zer kontzeptu ekonomikorekin lotzen duzu Dwight David Eisenhower AEBko presidente ohiaren esaldi hori? Arrazoitu zure erantzuna. (1,5 puntu)
- 2) Azaldu sozietate anonimoaren ezaugarri nagusiak (0,3 ezaugarri bakoitza; gehienez, 1,5 puntu)

PROBLEMAK:

Aukeratu itzazu hiru problema hauetatik bi.

- 1) Ardo-upel SL enpresak 340 upel ekoitzi eta saldu zituen 2019an. 24.000 euroko kostu finkoak eta 140 euroko kostu aldakor unitarioa hartu zituen bere gain. 30.400 euroko etekina lortu zuela jakinda, hau eskatzen da:
 - a) Kalkulatu ardo-upelaren salmenta-prezioa. (0,5 puntu)
 - b) Kalkulatu 2019rako errentagarritasun-ataria edo puntu hila, eta arrazoitu emaitza. (0,5 puntu)
 - c) 2020. urtean 200 upel salduko balitu, zenbatekoak lirateke kostuak guztira? Zenbatekoak lirateke mozkinak kasu horretan? (0,5 puntu)
 - d) Irudikatu arestian adierazitako guztia. (0,25 puntu)



ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA

- e) Inolako eragiketarik egin gabe, adierazi 140 unitate salduko balitu zein aldetan egongo litzatekeen, mozkinen aldean edo galeren aldean (arrazoituen erantzuna) (0,25 puntu).
- 2) Gorbeia enpresak bizikletak saltzen ditu, eta aztertzen ari da bere negozioa txirringarritza praktikatzeko erabiltzen diren arropa eta osagarrien salmentara zabaltzeko aukera. Horretarako, aurreikusitako 600.000 euroko ordainketa egin beharko lukeela eta inbertsioaren bizitzan, 4 urte, kobrantza eta ordainketa hauek sortuko liratekeela:

URTEAK	KOBRANTZAK	ORDAINKETAK
1	100.000	50.000
2	200.000	60.000
3	300.000	65.000
4	300.000	65.000

Honako hau eskatzen da: zehaztea ea komeni den proposatutako inbertsioa egitea:

- a) Pay-back irizpidearen arabera (berreskuratzeko-denbora), eskatutako gutxienezko epea 5 urtekoa dela jakinda (1 puntu).
- b) Balio eguneratu garbiaren arabera, eskatutako errentagarritasuna edo deskontu-tasa % 8 dela joz gero. (1 puntu).
- 3) Renova SA enpresak 2019ko abenduaren 31n honako ondare-elementu hauek aurkeztu zituen kontabilitatean, eurotan adieraziak: makineria, 20.000; zerbitzu-emateagatik hartzekodunak, 9.000; kutxa, 800; garraio-elementuak, 36.000; hornitzaileak, 6.000; salgai-izakinak 18.000; bezeroak, kobratu beharreko merkataritza-efektuak, 15.000; altzariak, 12.000; ibilgetu materialaren amortizazio metatua 17.000; jabetza industrial, 12.000; kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak, 9.000; legezko erreserbak, 3.000; bankuak eta kontu korranteak, 3.000; zordunak, 5.000; galerak eta irabaziak (mozkinak), 2.800; kapital soziala (zehazteke). Hau eskatzen da:
- a) Kalkulatu kapital soziala. (0,5 puntu).
- b) Egin 2019ko abenduaren 31ko egoera-balantzea. (1 puntu).
- c) Zehaztu kapital soziala osatzen duten akzioen kopurua, akzio bakoitzaren balio nominala 5 euro bada. (0,5 puntu).



TEST MOTAKO GALDERAK

Ingura ezazu erantzun zuzena zirkulu batez.

- 1) Zergatik da eskasia termino erlatiboa?
 - a) Beharrak mugatuak direlako eta baliabideak urriak.
 - b) Beharrak mugagabeak direlako eta baliabideak mugagabeak.
 - c) Beharrak mugagabeak direlako eta baliabideak urriak.

- 2) Estatuak merkatuaren desorekak zuzentzeko esku har dezakeen sistema ekonomikoa zer motatakoa da?
 - a) Planifikazio zentraleko sistema.
 - b) Merkatu-ekonomiaren sistema
 - c) Ekonomia mistoko sistema.

- 3) Aldagai hauetatik, zein ez da marketin-mixaren parte?
 - a) Sustapena.
 - b) Banaketa.
 - c) Mozkinak.

- 4) Adierazi faktore hauetatik zeinek ez duen lekualdatzen eskaintzaren kurba:
 - a) Produktua modan jartzeak.
 - b) Banatzaileentzako garraio-prezioen aldaketak.
 - c) Erabilitako teknologiaren hobekuntzak.

- 5) Biztanleria aktiboaren eta biztanleria osoaren arteko zatidura da ...
 - a) biztanleria aktiboa.
 - b) jarduera-tasa
 - c) langabezia-tasa

- 6) Sozietate mugatu bat eratzeko behar den gutxieneko kapitala:
 - a) 60.101,21 €
 - b) 3.005,06 €
 - c) 6.010,12 €

- 7) Enpresa non kokatu ez dago honen mende:
 - a) Enpresaren forma juridikoa.
 - b) Lurzoruaren kostua.
 - c) Jarduera mota.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2020

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2020

ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA

- 8) Zer da stock-haustura?
- a) Produktu baten narriadura.
 - b) Biltegian gertatutako matxura.
 - c) Produktu baten eskaerei erantzuteko izakinak agortzea.
- 9) Kostu aldakorrak hauek dira:
- a) Lortutako produktu kantitatearen araberakoak direnak.
 - b) Denboraren arabera aldatzen direnak.
 - c) Ekoizpen-bolumenarekiko independenteak direnak.
- 10) Zer da amortizazioa?
- a) Aktibo finkoko elementuen balio-galera estaltzeko irabazietatik kendutako kantitateak.
 - b) Finantzaketa-kreditu bat.
 - c) Bazkideen ekarpenak, aktibo finko berria eskuratzeko.



**EBAZPENA ENPRESAREN EKONOMIA
(2020)**

GALDERA TEORIKOAK:

- 1) Baliabideak urriak direnez eta modu batera edo bestera erabil daitezkeenez, esaldi horrek azpimarratzen du herrialdeek armamentu-beharrei erantzuteak beren herritarrentzat hain funtsezkoa den elikadura alde batera uztea dakarrela, eta, alde horretatik, ebasketa eta lapurreta gisa kalifikatzen du. Lehena, urritasunarekin eta lehen eta bigarren mailako beharrekin. Bigarrena baliabide-eskasiarekin eta aukera-kostuarekin.

- 2)
 - a) Bazkideak bat edo gehiago izan daitezke, pertsona fisikoak zein juridikoak izan. Bazkide bakarra badago, sozietatea "pertsona bakarreko sozietate anonimoa" deituko da.
 - b) Bazkideen erantzukizuna ekarritako kapitalera mugatzen da.
 - c) Gutxieneko kapital soziala ≈ 60.000 euro da, akziotan banatua, eta erabat harpidetua eta ordaindua egon behar du, gutxienez % 25ean eratzeko unean.
 - d) Akzioen transmisioa librea da.
 - e) Ordaindu beharreko zerga sozietateena da.
 - f) Enpresak irabaziak (dibidenduak) banatzeko eskubidea. Hau da, ekitaldiaren amaieran, enpresak bere bazkideen artean banatu ditzake lortutako irabaziak.
 - g) Akzio berriak lortzeko lehentasuna, enpresak kapitala handitzen badu.
 - h) Akziodunen batzar orokorrean parte hartzeko eta botoa emateko eskubidea.
 - i) Administrazioaileek egiten ari diren kudeaketari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.

PROBLEMAK

1.


- a) Irabaziak = $P \cdot Q - (KF + KA_b \cdot Q) \rightarrow 30.400 = P \cdot 340 - (24.000 + 140 \cdot 340)$
 $\rightarrow P = 300 \text{ €}$
- b) Errentagarritasun-atalasea = $\frac{24.000}{300 - 140} = 150 \text{ upel}$
- c) Kostu osoak = $24.000 + 200 \cdot 140 = 52.000 \text{ €}$
Etekina \rightarrow Sarrerak - kostuak: $(200 \cdot 300) - 52.000 = 8.000 \text{ €}$



ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA

Emaidza = sarrerak – gastuak => $2.000 \cdot 19 - ((6.000 + 4.000 + 5.000) + 11 \cdot 2000) = 1.000 \text{ €}$

d)



e) 140 upel salduz gero galerak izango lirateke, puntu hilaren azpitik delako.

2.

a) Hiru urte gehi $\left(\frac{175000 \cdot 360}{235000}\right) = 268$ egun

b) $BEGa = -600.000 + \frac{100.000 - 50.000}{(1+0.08)} + \frac{200.000 - 60.000}{(1+0.08)^2} + \frac{300.000 - 65.000}{(1+0.08)^3} + \frac{300.000 - 65.000}{(1+0.08)^4} = -74.393,68$

Negatiboa, BEG irizpidearen arabera inbertsioa ez da egingarria.

3.

AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
Aktibo ez-korrontea	63.000	Ondare Garbia	105800
Jabetza industrialia	12.000	Kapital soziala	100.000
Garraio-elementuak	36.000	Erresebak	3.000
Altzariak	12.000	Ekital. emaitza	2.800
Makineria	20.000		
Amortizazio metatua	-17.000	Pasibo ez-korrontea	9.000
Aktibo korrontea	66.800		9.000
Izakinak	18.000	Pasibo korrontea	15.000



ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA

Bezeroak	25.000		Epe laburreko maileguak		
Bezeroak mer. efek.	15.000				
Zordunak	5.000		Hornitzaileak	6.000	
Bankua k/k	3.000		Hartzekodunak	9.000	
Kutxa	800				
AKTIBOA GUZTIRA		129.800	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		129.800

a) Balio Nominala x akzio kopurua = Kapital soziala

$$5 \times \text{akzio kopurua} = 100.000 \rightarrow \text{akzio kopurua} = 20.000$$

TEST MODUKO GALDERAK

1. c; 2. c; 3.c; 4.a; 5.b; 6. b; 7.a; 8.c; 9.a; 10.a

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
Galdera teorikoak	
1	1.1, 1.2
2	2.7
Problemak	
1	2.15, 2.16, 2.17
2	2.24
3	3.1, 3.7
Test motako galderak	
1	1.1
2	1.3
3	2.22
4	1.5
5	1.8
6	2.7
7	2.2
8	2.10
9	2.16
10	3.1